

PROBA ESPEZIFIKOA

2018ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1. Testu-iruzkina. (4 puntu)

Gaur egun, gauza guztien tonua ez da hain demokratikoa, helduagoak baikara, baina hori errepikatu egiten da. Nabari dut bete dudala Kubako iraultzara bere lurraldean lotzen ninduen egitekoaren partea, eta agur esaten dizut zuri, kideei, zure herriari —nirea ere baden herriari— [...]. Ez dut legezko loturarik Kubarekin, izendapenak bezala hautsi ezin diren beste era bateko loturak baizik.

Nire iraganeko bizitzari begira jarririk, uste dut behar bezain zintzoki eta arduratsu lan egin dudala iraultzaren garaipena sendotzeko. Nire hoben larri bakarra, berriz, Sierra Maestrako lehen une haietan zugar konfiantza handiagoa ez izana da, eta behar bezain laster ez ulertu izana zure gidari- eta iraultzaile-dohaiak [...].

Nire ahalegin apalen esku-hartzea eskatzen dute munduko beste lurralde batzuek. Neuk egin dezaket zuk Kubako buru gisa duzun arduragatik egiterik ez daukazuna, eta iritsia da gu banantzeko ordua [...]. Bai zuri eta bai gure herriari esateko gauza asko nituzke, baina uste dut ez direla beharrezkoak; hitzek ezin dute adierazi nik nahi nukeena, eta ez du merezi orriak zirriborroz betetzea.

Garaipenera arte beti. Aberria ala Hil!

GALDEKIZUNAK:

- Sailkapena eta ezaugarriak
- Ideia nagusiak
- Testuinguru historikoa
- Konklusioak

2. Ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek: (2 puntu)

- A. Stalinen heriotza.
- B. Sobietar Batasunak Afganistan inbaditzea.
- C. Europako Bankua sortzea.
- D. AEBk Iraken aurkako gerra hastea.
- E. Alemaniaren bat egitea.
- F. Nelson Mandela Hegoafrikako lehen lehendakari beltza bilakatzea.
- G. Petrolioaren krisia hastea.
- H. Nurembergeko Prozesua hastea.
- I. Mao Zedongen heriotza.
- J. Normandiako lehorreratzea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2018ko MAIATZA

MAYO 2018

HISTORIA OROKORRA

HISTORIA GENERAL

3. Egin ezazu irudi honen iruzkin labur bat (2,5 puntu)



4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 1,5 puntu. / 0,5 puntu definizio bakoitzeko)

- a) Ginebrako Konferentzia (1954)
- b) Erromako Tratatua (1957)
- c) Bizargorri Operazioa
- d) Politika Ekonomiko Berria
- e) Stalingradeko Gudua
- f) Marshall Plana



EBAZPENA HISTORIA OROKORRA (2018ko maiatza)

- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

1.

Sailkapena eta ezaugarriak

Iturri primarioa.

Che Guevarak Fidel Castrori idatzitako gutuna. (1965eko urriaren 3a)

Testu politiko bat da.

Idea nagusiak

Fidel Castrok kubatarrekin eta Kubako iraultzarekin dituen harremanak.

Cheren eta Fidel Castroren arteko desadostasun ideologikoak. *Cheren* autokritika Fidel Castrorengan konfiantza ez izateagatik Sierra Maestrako lehen uneetatik.



HISTORIA OROKORRA

HISTORIA GENERAL

Iraultzaren, komunismoaren eta marxismoaren hedapena Latinoamerikan. Argudiatzen da *Che* Guevarak Txinaren aldeko joera zuela. Sobietar Batasunaren mende zegoen Kuba, jakina, eta sobietarrek ez zuten inolako interesik *Che* Guevarak inon arrakasta izan zezan.

<http://www.elnuevoherald.com/noticias/sur-de-la-florida/article118695123.html#storylink=cpy>

Testuinguru historikoa

Kubako iraultzaren ondorioz, ideia sozialistak hedatu egin ziren Amerikan 1960tik aurrera. Herrialde askotan, mugimendu iraultzaileak antolatu ziren, Kubaren adibideari jarraituz. Mugimendu horietako batzuk alderdi politiko alternatiboak ziren, baina beste batzuek gerrilla-gerrari ekin zioten. Adibidez, *Che* Guevarak Bolivian zuzendu zuena 1967an hil zuten arte. Iraultza-egoera hori kezagarria zen atzerriko inbertsiogileentzat eta, batez ere, Estatu Batuentzat, gerra hotza gori-gori zegoen garaian ez baitzuten nahi sozialismoa Amerikan hedatzea.

Gizartea asaldatua zegoen giro horretan, militarrek boterea hartzen hasi ziren. Estatu-kolpeen eta diktadura militarren garai bat izan zen. Gobernu horiek oligarkiaren eta atzerriko konpainien interesak defendatu ohi zituzten, eta errepresio gogorra erabili zuten herriaren aurka, Argentinan eta Txilen gertatu zen bezala 1970eko hamarkadan. Estatu batzuek, hala nola Mexiko, Kolonbia, Venezuela eta Brasil, errepublikaren legezkotasunari eutsi zioten, baina aurre egin behar izan zioten asaldatze iraultzaileari eta gerrilla armatuari. Txileko kasua bereziki garrantzitsua izan zen: Salvador Allende sozialista, 1970ean demokratikoki hautatua, estatu-kolpe odoltsu batek kendu zuen postutik, Estatu Batuek bultzatua. Gero, Pinochet jenerala buru zuen junta militar batek gobernatu zuen herrialdea 1990 arte, errepresio basatia erabiliz.

Konklusioak

Testuan, Kubako iraultzaren bi protagonista horien, *Che* Guevararen eta Fidel Castroren, lehen desadostasun ideologiko-politikoak ageri dira. Era berean, *Che* Guevarak iraultza Latinoamerikara hedatzeko zuen interesa nabari da.

2.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
J	H	A	G	I	B	E	F	C	D

3.



Ezker iraultzailearen goraldiaren aurrean, faxismoa izan zen muturreko kontserbadore eta nazionalisten erantzuna.

Haren lehen arrakasta Mussolini Italian boterera iristea izan zen, 1922an, Erromako Martxaren ondoren. Hori jasotzen du irudiak: lehen lerroan, Mussolini ageri da, kale-jantzian, eta beste buruzagi faxista batzuk.

4.

1. Ginebrako Konferentzia (1954)

Ginebrako Konferentzian, Vietnam bi estatutan banatzea onartu zen, eta 17 paraleloa ezarri zen banalerrotzat. Iparraldean, herri-gobernu bat ezarri zen; hegoaldean, Estatu Batuek lagundutako diktadura militar bat.

2. Erromako Tratatua (1957)

Mugarri funtsezkoa izan zen Europako historia garaikidean. Berarekin hasi zen gaur egun arte iritsi den Europa batzeko prozesua.

3. Bizargorri Operazioa

Bizargorri Operazioa izena erabili zuen goi-aginte alemanak SESBren inbasioa izendatzeko. Inbasioa 1941eko otsailetik zegoen prestatuta, eta ustekabean harrapatu zituen sobietarrak. Hitler, hala, bere helburu politikoetako bi lortzen saiatu zen: munduko komunismoa garaitzea eta bizi-espazioa irabaztea.

4. Politika Ekonomiko Berria

Politika Ekonomiko Berriak (NEP) sektore guztiak liberalizatu zituen aldi batez, eta ekonomia berpiztu zuen. Ekoizpen-indizeek gerra aurreko mailak gainditu zituzten, eta bizi-mailak hobera egin zuen. Bost urteko planek ezarritako aldaketek eten egin zuten joera hori, eta milaka nekazari koloka-egoeran gelditu ziren.

5. Stalingradeko Gudua

Alemaniko Seigarren Armadako 200.000 gizonen hartu zuten parte gudu horretan, eta hiriko auzo batzuk bereganatu zituzten 1942ko udazkenean. Alabaina, Zhukov jeneralak gidatutako sobietar erasoaldi batek erasotzaile alemanak eta haien errumaniar eta italiar aliatuak inguratu zituen. Hitlerrek ez zuen onartu bere tropak Stalingradetik erretiratzea, eta Seigarren Armada garaitua eta suntsitua izan zen. Wehrmacht ez zen inoiz suspertu hondamendi horretatik.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2018ko MAIATZA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2018*

HISTORIA OROKORRA

HISTORIA GENERAL

6. Marshall Plana

1947ko ekainean, Marshall jeneralak, Estatu Batuetako estatu-idazkariak, laguntza ekonomiko zabal bat ematea proposatu zien Europako estatu batzuei. Ondorioztatua zuen Europan nagusi zen miseria gorria faktore nagusia zela komunismoaren hedatze ideologiko eta politikoari laguntzeko.